

XXV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, lege bakar hau eman diguzu:
Zu eta lagunurkoa maitatzea;
iguzu, zure aginduak betez,
betiko bizitzara irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Am 8, 4-7

Pobreak diruz erosten dituztenen aurka.

Amos Profetaren liburutik

Entzun hau zuek, behartsuak zapaltzen
eta herriko jende xeheak hondatzen dituzuenok,
esanez: «Noiz igaroko ote da ilberria, garia saltzeko,
eta larunbata, mandioak irekitzeko?
Neurriak txikitu egiten dituzue,
balioak handitu, eta okerreko pisuak erabiltzen;
pobreak diruz erosten dituzue
eta behartsuak oinetako pare batean,
gari hondakinak ere salduz».
Jakoben aintzagatik, zin egiten du Jaunak,
ez duela sekulan ahaztuko, zuek egindakorik.

ERANTZUN SALMOA: Sal 112, 1-2. 4-6. 7-8

**R/. Goretsazue Jauna,
behartsua ateratzen duena.**

Edota Aleluia.

Jaunaren morroiak, goretsazue,
Jaunaren izena goretsazue.
Jaunaren izena bedeinkatua izan bedi,
orain eta gizaldiz gizaldi. R/.

Jauna garai dago herri guztien aldean,
Haren ospea ortziaren gainean,
Nor da Jauna, gure Jainkoa, adinakorik?
goian eseria dago;
eta begia jaisten du zeru eta lurreraino. R/.

Jasotzen du dohakabea hautsetatik,
ateratzen behartsua simaurretatik;

eseraraz dezan nagusiekin,
bere herriaren nagusiekin. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Tm 2, 1-8

*Egin otoitz Jainkoari gizaki guztien alde,
denak salbatzea nahi du eta Berak.*

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Hau eskatzen dizut lehenengo: otoitz, erregu eta esker emateak egiteko gizaki guztien alde, eta erregeen eta agintzen dauden guztien alde, zintzo eta egoki, izaera bare eta baketsuan bizi gaitezen. Ona eta atsegina da hau, Jaungoiko gure Salbatzailearen begietan, gizaki guztiak salbatzea eta guztiak egiaren ezaguerara iristea nahi du eta.

Izan ere, bakarra da Jaungoikoa, eta bakarra Jaungoikoaren eta gizakien bitartekoa: Kristo Jesus gizona, bere burua guztien ordain eman zuena. Bere garaian emandako aitormena da hau; eta horretarako ipinia nago ni albistari eta apostolu —egia diot, ez diot gezurrik—, jentilen irakasle sinesmenean eta egian.

Hau da, beraz, gizonezkoei eskatzen diedana: otoitzak gizonezkoek egin ditzatela toki guztietan, esku garbiak jaso, haserrerik eta eztabaidarik gabe.

EBANJELIOA: Lk 16, 1-13

Aleluia: 2 Kor 8, 9b

R/. Aleluia.

V/. Jesu Kristo aberats izanik, behartsu egin zen,
haren behartsu izatetik zuek aberats zaitezten. R/.

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: [«Gizon aberats batek kontuhartzaile bat zuen, eta ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten.

Deitu zuen, eta esan zion: "Zer da, gero, zuretzat entzun dudana? Emadazu zeure kontuhartzailletza horren garbitasuna; gaurtik aurrera ez zara nire ondasunen kontuhartzaile izango".

Kontuhartzailea honela ari zen orduan bere baitan: "Zer egin behar dut orain? Nagusiak kontuhartzailletza kentzen baitit. Aitzurrerako indarririk ez dut; eskerako lotsatu egiten naiz. Badakit zer egin, nagusiak kontuhartzailletza izatea kentzen didanean, norbaitek bere etxean har nazan".

Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiak deitu zituen, eta esan zion lehenengoari: "Zenbat zor diozu zuk nire nagusiari?" Eta hark: "Nik ehun upel olio". Eta berak: "Tori zeure agiria; eseri zaitez, eta idatz azkar: berrogeita hamar". Gero beste bati: "Zuk zenbat zor diozu?" Eta hark: "Nik ehun anega gari". Eta hark: "Tori zeure agiria; eta idatz laurogei".

Nagusiak goralduekin egin zuen kontuhartzaile gaiztoa, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundu honetako semeak zentzudunagoak dira berentarrekin, argiaren semeak baino.

Beraz, hara Nik esan: "Egitzazue adiskideak okerreko dirutik, dirurik gabe aurkitzen zaretenean, betiko etxean har zaitzaten.] Gauza txikienetan leiala dena, handian ere leiala da; txikienean zintzoa ez dena, handian ere ez. Beraz, okerreko diruarekin leial izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasunak? Eta besterenarekin ez bazarete leial izan, nork eman zuei zeuenak? Ezin daiteke zerbitzari bat, bi nagusiren morroi izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maiteko; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi"».

Oparigaien gainekoa

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure herriaren eskaintza:
fede beroz aitortzen duena
sakramentuen bidez irits dezan.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Indar itzazu, Jauna, zeure graziaz
sakramentu hauek ospatu dituztenak,
misterio hauetan eta bizitza guztian
zure salbamenaren fruituak jaso ditzaten.
Jesu Kristo.